



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa oharra

Maiatzaren 4ko Kultura eta Euskerako Batzordeko bozketak

Bilbon, 2012eko maiatzaren 4a. Maiatzaren 4an Josune Ariztondo Kulturako Foru Diputatua Batzar Nagusien Kultura eta Euskerako Batzordean izan da, Gernikako antxinako ASTRA lantegiko lanei buruzko eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuko kulturearen eta museistikaren ganeko azterlanari buruzko argibideak emoteko, alde batetik berak eskatuta eta, beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak eskatuta. Horreek gaiok aztertu ondoren, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamen bi eztabaidatu dira Kultura eta Euskerako Batzordean.

Evaristo de Churruca jaunaren monumentua iraunerazotea

Gai horren inguruko Arauz Besteko Proposamenean eztabaidatu da Getxoko Areetan dagoan Evaristo de Churruca jaunaren monumentua eta horren ingurua mantentzeko eta iraunerazoteko Getxoko Udalaren eta Biboko Portu Agintaritzaren arteko koordinazioari buruz. Aldundiaren aginpidepekoa ez dan arren, Bizkaiko Talde Popularrak eskatzen eutsan “Foru Aldundiari eze, Bilboko Portu Autonomoaren Administrazio Kontseiluan dauen ordezkariaren bitartez, erabagi daitela Kontseilu horrek egin beharrekoak egitea, Getxoko Udalagazko koordinazioan, mantenimentua, babesa eta iraunerazpen egokia emoteko Evaristo de Churruca jaunaren monumentuari eta inguruan dituan lorategiei”. Proposamena onartu egin da Bildu, Socialistas Vasco eta Talde Popularraren botoakaz, guztira 7, eta Euzko Abertzaleak Taldearen 6 ordezkarien abstentzioagaz.

Bizkaiko edurtegi artifizialak babestea

Batzordean eztabaidatu dan bigarren Arauz Besteko Proposamena izan da Bizkaiko edurtegi artifizialak babesteari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutakoa. Horren bidez eskatu gura jakon “Foru Aldundiari eze eskatu deiola Eusko Jaurlaritzari Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 Legean ezarritakoaren arabera katalogatu, inbentariatu eta legez babestu dagizala Bizkaian dagozan edurtegi artifizial guztiak”. Adituen arabera, guztira 22 edurtegi dagoz zenbait udalerritan. Talde Popularrak onartu egin dau Socialistas Vasco Taldeak aurkeztutako zuzenketa-eskea, sozialistek uste dabelako udalerriek be parte behar dabela babes-lan horretan “bakotxak bere udalerrian kokatutako ondare kulturalak babestu leikezalako udal eremuko urigintza-planeamenduko baliabideen bitartez”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

Resultados de las votaciones de la Comisión de Cultura y Euskera

Bilbao, a 4 de mayo de 2012. Esta mañana ha comparecido en la Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales, a petición propia y del Grupo Popular Vizcaíno, la diputada de Cultura, Iosune Ariztondo, para informar de las obras en la antigua fábrica Astra de Gernika, y para dar cuenta del Estudio Cultural y Museístico en el ámbito de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Después de la información facilitada por la máxima responsable cultural de la Diputación sobre estos dos asuntos, la Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales de Bizkaialos ha debatido las siguientes proposiciones No de Norma presentadas por el Grupo Popular Vizcaíno.

Conservación del Monumento a Evaristo de Churruca

Esta proposición no de norma ha tratado sobre la coordinación entre el Ayuntamiento de Getxo y el Puerto Autónomo de Bilbao para el mantenimiento y conservación del Monumento a Evaristo de Churruca y su entorno situado en Las Arenas (Getxo). Pese a no ser una competencia del Gobierno foral, el Grupo Popular ha querido que sea el representante de la Diputación Foral en el Consejo de Administración del Puerto Autónomo de Bilbao, propietario de la escultura, el que informe de la situación e inste a éste a hacer lo posible por la conservación del monumento. La proposición ha sido aprobada gracias al voto favorable de los Grupos Bildu, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno que han sumado 7 votos, y a la abstención de los 6 representantes del Grupo Nacionalistas Vascos.

Protección de los neveros artificiales existentes en Bizkaia

La segunda proposición a debate ha sido la concerniente a la protección de los neveros artificiales existentes en Bizkaia. El Grupo Popular pretendía que las Juntas Generales de Bizkaia instaran a la Diputación Foral a que “solicite al Gobierno Vasco a que proceda al inventario, catalogación y protección legal en los términos que establece la Ley 7/90 del Patrimonio Cultural Vasco del conjunto de neveros artificiales existentes en Bizkaia”, que según los expertos suman 22 neveros en diferentes localidades. La proposición ha sido aprobada por unanimidad.

La iniciativa del Grupo Popular ha recogido una enmienda del Grupo Socialistas Vascos que solicitaba que en la petición se incluyera a los ayuntamientos como agentes proteccionistas ya que los municipios “pueden proceder a la protección de los bienes culturales radicados en sus respectivos términos municipales a través de los instrumentos de planeamiento urbanístico de ámbito municipal” según la justificación presentada el 11 de abril.